



Endika Sangroniz - Asier Agirre - Markel Peña
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

John Andueza 2

Sarrera 2

Prime-Time

● Kokapena 3

● Gaia 3

● Argumentua 3

● Istorioa 4

● Pertsonaiak 6

● Egituraketa 7

● Baliabideak 7

Iritzia 8

Bibliografia-Webgrafia 9

JOHN ANDUEZA



John Andueza Altuna 1966an Burns-en (Oregon, Estatu Batuak) jaio zen. Kazetaritzan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Bi aldiz irabazi du “Rikardo Arregi” kazetaritza saria.

1993tik aurrera, ETBko hamaika telebista saiotan, aurkezlea, zuzendaria, gidoigilea, edota aktorea izatea egokitu zaio. Esaterako, *Hor dago koska*, *Elkanotarrak*, *Goenkale*,

Hasiberriak eta *Trikitraka Trikitron* saioetan.

Zinemagintzan ere film laburrak (*Laugarren Galeriatik*, *Bernar*, *Aita Guria*, *Bilintx*) eta dokumentalak (*Fatimetu* eta *Simplemente*) zuzendu ditu.

Gaur arte, idazle gisa, gazteentzako liburuak argitaratu ditu: *Larunbatean Bukowskin* (Elkar, 2012), *Kankaleko misterioa* (Elkar, 2013), *San Ferminetan*, *Lesakan* (Elkar, 2014). Bere obra horiekin, “Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa” eta Bilboko “Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa” irabazi ditu.

Orain, helduen literaturan debutatzeko, intrigazko nobela potentea sortu du. Eta estilo azkarra erabili du, zuzena, erabat zinematografikoa.

SARRERA

Prime-Time John Anduezak idatzitako nobela beltza da, 2014an argitaratua. Nobela beldurrezko hau ikertzaileen giroan sartzen da betebetan. Bestalde, istorioaren garapenean aipatzen diren lekuak (Maidagan Kalea, Maphre aseguru-etxea, Ilunabar taberna...) benetan existitzen dira, eta horrek errealitate ukitu bat ematen dio obrari.

Narrazioari dagokionez, joera zinematografikoa duela eta planoen deskripzioekin batera esan daiteke John Anduezak idazteko bere estilo propioa garatu duela esan daiteke. *Prime-Time* krimena eta ezohiko gertaerak nahastearen emaitza da.

PRIME-TIME

Kokapena

Prime-Time gaur eguneko Euskal Herrian kokatuta dago, batez ere Bilbon eta bere aldameneko herrietan. Eleberrian Gernika, Getxo eta Bilboko inguruak aipatzen dira gehienbat (Portu zaharra, Arrigunagako itsaslabarra, Artxandako parke abandonatua...), bertan gertatzen baita Bala eta Klemente korapilatzen diren trama nagusia.

Obran Euskal Herriko hainbat leku, pertsonaia eta kantu ere ageri dira, adibidez: Deustuko eta Nafarroako unibertsitateak, Arkauteko Ertzaintzaren akademia, Mikel Laboaren *Hegoak ebaki banizkio*, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotza*.

Bestalde, idazleak Euskadiko egoera politikoa eta ekonomikoa ere aipatzen ditu gainera. Gainera, idazleak kanpoko herrialde batzuk aipatzen ditu (Filipinak, Tailandia, Indonesia...), bertara Lukas Montxon, Alex Aginaga eta Alberto Sotillos doazelako dokumental batzuk grabatzera.

Gaia

Telebista kate bateko hiru pertsonaren heriotzen ondorioz, Klemente Elustondo eta Martin Balanguer detektibe pribatuen ikerketa.

Argumentua

Bala eta Klemente erabat ezberdinak dira. Hala ere, *Irrintzi Operazioan* porrot egin egin eta gero, Ertzaintzatik kanporatuak izan ziren, eta Bilbon detektibe agentzia bat zabaltzea erabaki dute. Hasieran, ikerketa txikiekin hasi dira detektibe gisa, baina laster, enkargu potolo bati aurre egin beharko diote: hiru pertsonaren heriotza. Ikerketa sakona egin eta haien bien zuhurtzia erabili ondoren antzemango dute nor den hiltzailea. Tamalez, misterioa ebatzen duten arren, hiltzaileari arrastoa galtzen diote, eta ez dakite hilik dagoen ala bizirik dirauen.

Istorioa

Martin Balaguer eta Klemente Elustondo bi polizia dira, *Irrintzi Operazioa*-ren porrotaren ondorioz Ertzaintzatik kanporatuak izan zirenak. Laster, berriz elkartzen dira biak, Bilbon detektibe agentzia bat zabaltzeko eta detektibe pribatu gisa lan egiten hasteko.

Bi detektibeak garrantzia txikiko kasuak ikertzen zituzten, adibidez, emakume batek bere senarrari adarrak jartzen dizkiola baieztatzea, ikertzen hasten dira egun batean Lukas Montxonon, garai bateko telebistako aurkezle eta aktore nagusiaren telefono dei bat jasotzen dutenean. Motxonek bere etxean zitaten ditu Bala eta Klemente, eta azken hauek, bere etxera sartzean, gurpil-aulki astun bati lotuta bizitzera kondenatuta dagoela ikusten dute. Gauzak horrela, Lukas Montxonek bi detektibeei azaltzen die bere elbarritasunaren arrazoia, kotxe istripu madarikatu bat, alegia. Jarraian, Montxonek detektibeei bere bi adiskideen heriotzak (Alberto Sotillos eta Alex Aginaga) ikertzeko eskatzen die. Bata, urkatuta agertu zen Artxandako parke abandonatuan; eta bestea, Arrigunagako haitzetan agertu zen. Ertzainaren ustetan, biak bere buruaz beste egin zuten, baina Lukasek ez du hori uste.

Bat-batean, hitz egiten daudela, garai bateko telebistako aurkezle eta aktore ospetsuak dei bat jasotzen du eta elkarrizketa labur baten ondoren, moztu egiten du sakelakoa Balari pasatuz, hor nonbait uzteko eta inork berriro ez molestatzeko. Balak alde batera eta bestera begiratzen du, azkenean telebista gaineko armairu altuan uzten du, goiko apalean.

Bala eta Klemente, luzaroan Montxonekin berriketan egon ondoren, enkarguzko ikerketa onartzen dute, ikerketa lana banatzearekin batera. Horrela, Bala Algortako Arrigunagako labarrera doa Alex Aginagaren heriotzaren aztarnak arakatzera; eta Klemente, berriz, Artxandako parke abandonatura, Alberto Sotillos urkatu omen zen lekura.

Bala La Galeako labarretara jaisten da, eta bertan odol arrasto lausoak baino ez ditu ikusten. Argazki batzuk atera, eta lekua ondo aztertu eta gero, Alex Aginagak bere kabuz egin zuela salto ondorioztatzen du, ez baitago beste inoren arrastorik ez urratsik. Orduan, labarretik igo eta haize errotaren ondoan, soineko beltzez jantzitako emakume zelataria ikusten du, ilehoria, argala eta altua, ustekabean Balaren bistatik desagertzen dena.

Hurrengo egunetan, Klementek eta Balak, bakoitzak bere kabuz egindako ikerketak komunean jartzen dituzte, eta pilatutako datuekin, Alberto Sotillosek eta Alex Aginagak bere buruaz beste egin zutela ondorioztatzen duen txosten bat egiten dute Lukas Montxonin emateko. Balak, bere txostena

egin baino lehen Josu Aginagari, Alex Aginagaren anaia, itaunketa egiten dio, baina ez du ezer susmagarririk antzematen.

Orduan, Montxon egindako txostena luzatzen diote, eta egun gutxira, Ernesto Gisasola, telebistako zuzendari nagusia, bere Gernikako txaleteko igerilekuan agertzen da itota. Ondorioz, Bala eta Klementek, Aginagaren eta Sotillosen heriotza ikertzen jarraitzen dute, aurreko biek eta Gisasolak telebistan lan egiten baitzuten.

Gisasolaren etxebizitzan, segurtasun-kamera batek, Gisasolaren kotxea gidatzen zuen gizon betaurrekodun eta bizardun bat, eta geroago, emakume ilehori bat soineko beltzez jantzita bizkarra ematen grabatu zuen. Grabazio horrekin, Bala eta Klemente profil horren bila ibiltzen dira, eta bitartean Lukas Motxon Suitzara doa ebakuntza bat egitera.

Gau batean, Klemente eta Bala Bilboko taberna batera joaten dira afaltzera, eta tabernan eserita daudela, Balak telebistan ume bat altzari altu batetik zerbait hartzeko ahalegina egiten ikusten du, eta eszena horrek Balari Montxon sakelakoa telebista gaineko armairu altuan utzi zueneko momentua ekarri dio oroimenera. Momentu horretan, Bala konturatzen da Lukas Montxon dagoeneko ez dela elbarria eta bere kabuz ibili ahal dela. Hurrengo egunsentian bertan, bi detektibeak Lukasen Campo Volantineko etxera abiatu eta bere etxebizitza itxita zegoela ikusita, bere auzokide batekin hitz egiten dute, eta auzokideak esaten die duela gutxi Montxon ikusi zuela oinez eta errekueratu egin zela. Gertatutako ikusita, bi detektibeak amorratuta daude, Lukasek haien aurpegian antzeztu zuelako.

Pare bat egun igaro ondoren bulegoan lanik gabe, detektibeek Venezuelatik bidalitako gutun bat jasotzen dute, eta horren barnean zegoen DVDA ordenagailuan sartu eta ikusten hasten dira. Bideoan Lukas Montxon agertzen da, berak akabatutako hiru kideen hilketen arrazoiak eta bere azken proiektua “Epilogoak”, pertsona ospetsuei egindako elkarrizketa postumoak, hil ondoren emititu beharrekoak, azalduz. Bideoaren amaieran, Lukasek bere buruaz beste egiten du, baina Klemente eta Bala bideo behin ikusita, dudamudatan geratzen dira. Bi detektibeek ez dakite, beraz, Lukasek benetan bere buruaz beste egin duen ala bere heriotza irudikatu nahi izan duen.

Pertsonaiak

Martin Balaguer (Bala). Berrogeita bi urteko gizona gonazalea da. Hiru aldiz ezkondu da, baina hiru ezkontzek porrot egin dute. Arkauteko akademian Ertzaintzarako ikasketak egin zituen eta bertan, Klemente Elustondo ezagutu zuen. Beranduago Donostian destinatu zuten anti-narkotikoetan eta Klemente kapitain gisa zuela *Irrintzi Operazioa*-ren ondorio biak kaleratu zituzten. Azkenean biak detektibe pribatu bihurtzen dira.

Klemente Elustondo. Gizon txikia, iharra eta betaurrekoduna da. Xehetasunei adi egoten den gizona ere bada, baina oso itxia beste batzuen aurrean. Bala du lagun bakarra eta bera bezala *Irrintzi Operazioaren* ondoren kalean geratu zen eta Balarekin batera detektibe pribatu bihurtzen da.

Lukas Montxon. Euskal telebistako aurkezle eta aktore ohia da. Mozkortuta zihoala kotxe-istripu bat eduki zuen eta horren ondorioz bere emaztea hil egin zen. Lukas, aldiz, elbarri geratu zen istripuaren ondorioz, gurpildun aulki bati lotuta. Klemente eta Balari eskatzen die bere bi lagun hilketak (Alex Aginaga eta Alberto Sotillos) ikertzeko, ez baita fidatzen Ertzainak emandako hipotesiez.

Alex Aginaga. Algortako Arrigunagako itsaslabarrean hilda aurkitutako gizona da. Lukasen lagun mina eta berarekin lan egin zuen telebistan. Lukasek istripua eduki ondoren ondoen zaindu zuen laguna izan zen. *Badugu Produkzioak* enpresaren burua izan zen.

Alberto Sotillos. Nafarroako unibertsitatean kazetaritza ikasketak egin zituen. Lukas Montxonen laguna zen. Egun baten Artxandako parke abandonatuan urkatuta aurkitu zuen poliziak.

Ernesto Gisasola. Telebistako zuzendari nagusia zen. Dirudun samarra. Gernika kanpoaldeko urbanizazio batean aurkitu zuten itota. Lukas Montxonen ezaguna zen.

Laura Arana. Alex Aginagaren *Badugu Produkzioak* enpresan, idazkari gisa lan egiten duen azkenengoetariko langilea da. Emakume gaztea eta ilehoria. Bala maitemindu egin zen Laura ikusi zuen lehenengo momentutik. Euren lehenengo zitan gauzak ez ziren ondo atera baina, azkenean, Balak barkamena eskatu zion lehenengo zitan egindako itaunketa zela eta, Laurak bere lana zela ulertu zuen, eta elkarrekin ateratzen hasi ziren.

Egituraketa

Eleberri hau kapitulu eta azpi-kapituluka dago banatuta, sei kapitulu eta hogeita zortzi azpi-kapitulu, hain zuzen. Liburuaren istorioa lineala da, ez du flash-back teknika erabiltzen istorioa kontatzeko. Kasu batzuetan, iraganeko pasarteak kontatzen ditu, pertsonaiaren burutapenak, sentsazioak edota bizi izandako gertaerak. Liburuaren azkenengo zatian, epilogoiei dagokien zatian, etorkizunean egongo balitz bezala kontatzen du istorioa.

Protagonista edo Balari dagokionez lehenengo pertsonan dago kontatuta, narratzaile protagonista erabiltzen du, pertsonaia nagusiaren barneko pentsamenduak eta bizipenak adierazteko. Hala ere, gehien nabarmentzen den narratzaileak hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa, nahiz eta batzuetan, elkarrizketaren bat egon. Besteak beste, Laurarekin lehen aldiz elkartu zenean gertatzen da elkarrizketa, eta horrez gain, Balak eta Klementek elkarrekin hitz egiten dutenean ere elkarrizketa ugari agertzen dira.

Baliabideak

Obra honetan, idazleak erabiltzen dituen baliabide esanguratsuenak, narrazioaren egituraketa eta zehaztasun handiko deskribapena dira, batez ere pertsonaia bat deskribatzen duenean.

Narrazioaren egiturari begira Anduezak zehaztasunei garrantzi handia ematen die, adibidez, istorio honek duen gakoa Lukas Montxonek, mugikorra goian egon arren, telefono hori berak hartzea da, horrela konturatzen direlako Lukasek bere elbarritasuna antzeztu egin duela bi detektibeen aurrean. Anduezairen kontaketa estilo landuan dago eta, aldi berean, irakurtzeko erraza gertatzen da. Kontaketa honetan, ezinbestekoak suertatzen dira epilogoen agerraldiak nobelaren istorioaren garapena ondo ulertzeko eta haria ez galtzeko.

Zehaztasun handiko deskribapenak erabiliz, irakurlea lekuan kokatzea lortzen du autoreak. Era berean, aipagarria da autorearen trebezia istorioan agertzen diren lekuak edo aipatzen diren tokiak deskribatzeko erabiltzen duen lexikoa eta zehaztasuna. Baita ere, liburuaren amaierara heldu arte irakurlea liburura itsatsita egotea lortzen du, istorioak duen misterioagatik, eta egoera hori xehetasunez kontatzeko gai delako.

IRITZIA

Obra honen istorioa interesgarria eta erakargarria geratzen da, protagonistak tentsioz eta misterioz betetako egoera batean daudelako, eta azken unera arte ez delako jakiten nor den telebistan lan egiten zuten hiru gizonen hiltzailea.

Ulermenaren aldetik, lexiko hurbila du, eguneroko giroan erabiltzen diren hitzak direlako eta egileak ez duelako hitz tekniko gehiegi erabiltzen.

Nobela gustukoa izan dugunez, zalantza barik gomendatuko genuke, bereziki 16 urte gorako pertsoneri, hilketa latzak agertzen direlako, eta pasarte jakin batzuetan deskribapen zehatzak egiten dituelako Anduezak. Horrek irakurleari argumentuan murgiltzen laguntzen dio, eta film batean islatuko balitz gertaeren bortizkeria askoz gehiago nabarmenduko litzateke.

Beste alde batetik, gustukoa izan dugu liburuan azken urteetako teknologia eta musikaren inguruko traste teknologikoei erreferentzia egitea: Whatsapp, Iphone, Gangnam Style...

Gainera, ezagunak ditugun leku eta ingurumenen presentziak istorioan agertzea (Arrigunagako hondartza, La Galea, Algortako Portu Zaharra, Maphre aseguru-etxea...) irakurketan lagundu eta are entretenituagoa bihurtzen du obra.

Horrekin batera, esan genezake argumentua gaur eguneko errealitatean oinarritzen dela, egileak ez baitio ukitu fantastikorik ematen istorioari eta haren amaierari. Beste egile batzuk, ordea, istorioan hainbat arazo planteatzen dituzte, eta bukaera irrealak egiten dituzte edo ez diete lehen aipatutako arazoei erreferentzia egiten. John Andueza ez da egile talde horretan sartzen, lehenengo momentutik argi baitzuen nolakoak izango ziren istorioaren sarrera, garapena eta amaiera.

Oro har, nobela beltz bikaina dela esan dezakegu; beraren idazteko estilo sinplea, baina landua gustukoa izan dugu; eta horregatik eta orain arte aipatu dugunagatik, irakurtzea merezi duen eleberria da.

BIBLIOGRAFIA - WEBGRAFIA

- *Elhuyar Hiztegia*. Elhuyar edizioak. 2003.
- *Prime-Time*. John Andueza. Elkar. 2014.
- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/john-andueza-altuna>
- <http://xuxen.eus>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>